

1. ARGENTINA, NDF ETA ZORRA: LEHENGO LEPTIK BURUA

Argentina albiste izan da Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) Macriren gobernuarekin 50.000 milioi dolarreko erreskatea hitzartu duelako. Cambiemos, enpresarioaren alderdia, pozik agertu da hiru urterako akordio honekin, zeinak doikuntza fiskala egitera derrigortzen duen eta 2020rako defizita kentzera. Baina, zer esan nahi du erreskateak? Pozteko modukoa da, edo aitzitik, langile-klasearentzat kezkagarria? Artikulu honetan galdera horiek erantzuten saiatuko gara, eta Argentinako egoera sozioekonomikoa zein den aztertuko dugu.

Argentinako gobernuak eta NDFk sinatu duten akordioaren xehetasunetan sartu aurretik, errepara diezaiogun Christine Lagardek gidatzen duen erakundeari, eta herrialde latinoamerikarraren iraganari.

Attac-Argentinako Maria Elena Saludas arduradunak gogoratzen duenez, NDF 1944an eratu zen Bretton Woodseko Akordioaren baitan. Estatu Batuen hegemoniaren peko mundu sistemaren tresna gisa sortu zen; beraz, ez da neutrala. Zeharo antidemokratikoa da, herrialde aberatsenek Administrazio Kontseiluan botoen erditik gora baitute. Esan daiteke, halaber, nazioarteko potentzia nagusien bitartekoa dela sistema kapitalistaren iraupena eta enpresa transnazional handien interesak zaintzeko. Hasieratik bertatik herrialdeetan muturra sartzeko logikari jarraitu dio: bere “laguntza” eskatzera jo duten herrialde guztiei “doikuntza estrukturala” delakoaren programak ezarri dizkie.

Argentina eta NDF ezagunak dira aspaldidanik. Herrialdeak krisi larria

pairatu zuen lehengo mende bukaeran. Kanpo zorra hazten ari zenez, gobernuak NDFrekin bi operazio adostu zituen, zorpetzeko eta birfinantzatzeko: *Blindaje* eta *Megacanje* izan ziren. 2001eko urtarrilean 40.000 milioi dolarreko kreditua jaso zuen, eta irailean beste 8.000 milioi. Haatik, “laguntza” hura alferrekoa izan zen, kapitalak arrapaladan ihes egiten ari zirelako, eta NDFk erreskaterik eman nahi ez zuelako, egoera jasangaitza bilakatu zen.

2001eko abenduan krisiak derrigortu zuen diru likidoaren erabilpena mugatzera epe finko, kontu korrante eta aurrezki-kutxetan; hori izan zen zorioneko *corralitoa*. Hilabete hartan bertan, Adolfo Rodríguez Saaren gobernuak *default* egoera deklaratu zuen, zorraren eta bere interesen ordaina eten zuelarik (zorria ordurako 144.000 milioi dolarrekoa zen). Gero Nestor Kirchnerren gobernuak hartzekodun gehienekin zorra berregituratzea adostu zuen, %70eko kitarekin. Alabaina, putre-funtsek osatutako hartzekodunen talde txiki batek, bonuak prezio barregarrietan erosi eta gero, kitatze hori ez zuen onartu, eta Argentinako gobernuak AEBetako auzitegietan salatu zuen. Macri boterera iritsi zenean putre-funtz horiekin hitzartu zuen ordaina, kutxa publikoentzat izugarritzko kostuz.

Macriren gobernuarekin Argentina noraezean dabil. Hona hemen Macri NDFri laguntza zergatik eskatu zion:

- Finantza-espekulazioak burbuila bat sortu zuen Lebac-en (epe laburreko zor-tituluak, Argentinako Banku Zentralak jaulkitakoak) interes-tasa altuen inguruan.
- Merkataritza-defizitak marka historikoa ahutzi zuen, inportazioek gora eta esportazioek behera egin zutelako.

- Gainera, kanpo-zor publikoaren pisua etengabe hazi da 2015etik hona. Urte hartan BPGaren %15,8ean zegoen, eta 2018an %35a gaindituko duela espero da.
- Argentinako Banku Zentralak 10.000 milioi galdu zituen truketasa egonkortu nahian; pesoak bere balioaren %23 galdu zuen apirilaren 19tik maiatzaren 15era bitartean; dolarrak 28 pesoko balioa hartu zuen. *Corrida bancaria* delakoak (hau gertatzen da banku baten bezeroek epe laburrean saldoka gordailuak erretiratzen dituztenean, etorkizunean diru guztia galduko dutelako beldurrez), apirilaren amaiera aldera hasi zenak, diruaren balioa ia %35 jaistea eragin zuen urte hasierarekiko.
- *Corridak* eragindako kostu izugarriaren ondoren defizit fiskala ere puztu egin zen.
- 2018ko lehen hiletan soldaten batez besteko balioak erosa-ahalmena galdu zuen. Inflazioa areagotzearekin batera (%30era irits daiteke), soldata errealek astindu gogorra jasango lukete.

Horrenbestez, Macrik Argentina jasan ezineko egoerara eraman du bere politika neoliberalekin, hauek desoreka makroekonomiko larriak eragiten baitituzte. NDFaren mailegua zen goiko klaseei mesede egiteko geratzen zitzaion aukera bakarretakoa.

Kreditu-programan 50.000 milioi dolarreko mailegua aurreikusi da. Horietatik 15.000 berehala erabil ditzake. Gainerako 35.000k, berriz, datozen hiru urteetan jaso ahal izango ditu gobernuak hitz emandako programa ekonomikoa betez gero.

Ogasun ministroak Lagarderi bidali zion intentzio-kartak dioenez doikuntza fiskala eta diruarena areagotu egingo da; beraz, aurrekoa baino fase are errezesiboagoa hasiko da, herritar gehienek kalteerako. Aipatutako kartak honako puntuak aipatzen ditu:

- Enplegu publikoaren murrizketa. Centro de Economía Política de Argentina (CEPA) erakundearen arabera, 30.000 enplegatu publiko kaleratuko dituzte 2018 eta 2019an.
- “Lehiakortasuna bizkortzeko funtsezkoak ez diren” herrilan proiektuak atzeratu egingo dira.
- “Distortsioa eragiten duten zergak” murrizte aldera egin beharreko aldaketak gauzatzeko epea luzatu egingo da.
- Probintziei egiten zaizkien eta gastua eragiten duten “transferentzia diskrezionalak” gutxitu egingo dira.
- Energia eta garraiorako dirulaguntzak areago murriztuko dira (56.000 eta 30.000 milioi dólar, hurrenez hurren).
- Argentinaren gobernuak ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko egiten duen gastua %15 murriztuko du, kopuru errealetan, 2018an iazko mailarekiko, eta 2019an ere prozesu horri eutsiko zaio.

Hauek Macriren gobernu eskuindarrak ezarri nahi dituen neurrietako batzuk besterik ez dira. Agerikoa da funtsean murrizketak direla. CEPAREN ustez gizarte-gastua zeharo moztuko da: soldatetan, 78.000 milioi dólar gutxiago; pentsioetan, 50.000; gizarte-laguntza eta AUH direlakoetan, 30.000 milioi, eta programa sozialetan, 30.000 milioi. Baina 2019an ere murrizketa gehiago izango da, besteak beste, herrilaneetan 30.000

milioi gutxiago, unibertsitateetan, 20.000 milioi, hezkuntzan, 15.000 milioi, eta osasungintzan, 2.000 milioi.

Beraz, lehengo lepotik burua, doikuntza fiskal honek -zeina aurrekoa baino gogorragoa izango den- Argentinan politika neoliberalak areagotu egingo baititu. Ondorioa, gizartea txirotea eta nazioaren burujabetzaren galera gero eta handiagoa.

2. GREZIA: ZORRAREN INGURUKO ERDI-EGIAK

Ekainaren 22an eurotaldeak Greziari buruzko adierazpen bat plazaratu zuen. Finantza-laguntzarako programa amaitutzat emateko itxuraren pean, Greziako gobernuak hitza eman du doikuntza politikari eutsiko diola, lan-, administrazio-, pensio- eta osasun-erreformekin. Atal honetan TV5 Mondeko Marie Brette kazetariak Eric Toussaint CADTMren presidenteari egindako elkarrizketa jaso dugu; Toussaint Greziako Zorrari buruzko Egiaren Batzordearen buru izan zen.

-Marie Brette: Zer deritzozu euroguneko ministroek sinatu duten akordioari? Greziak gainditu al du krisia?

-Eric Toussaint: Ez, inola ere ez da krisia gainditu. Bestalde, euroguneari dagokionez ere, agintari europarren ikuspegitik ezin da esan egoera oso oparoa denik. [Zorra](#) murriztu dela esaten dutenean ez dute egia esaten, [zorraren stock-a](#) ez delako murriztu; kontua da diru kopuru batzuk itzultzeko unea hamar urtez atzeratu dutela, batik bat Greziaren hartzekodun diren funts eta herrialde europarrekin.

[Nazioarteko Diru Funtsari](#) (NDF), [Europako Banku Zentralari](#) (EBZ) eta

hartzekodun pribatuei itzuli beharreko kopuruak oso handiak dira, baina horiek ez dituzte atzeratu; hor diraute. 2010etik NDFk 5.000 milioi euroko irabazia gauzatu du Greziaren lepotik, eta [EBZ](#)k, bere aldetik, gutxienez 8.000 milioi euro irabazi ditu titulu greziarrekin. Izatez, akordioaren mamia da, itzultzeko epea luzatuz, Alexis Tsiprasen gobernuari sari kontsolagarri bat eman zaiola, hiru urtez jarraian hartzekodunek agindutako makina bat erreformei men egin diolako.

Hiru urtez sekulako politika murriztailea egin ondoren, Tsiprasi aukera eman behar zitzaion greziarrei esateko austeritateak emaitzak eman dituela. Baina hartzekodunek (NDF, EBZ, egonkortasun mekanismo europarra) ezarritako politika antisozialak indartuak atera dira. Ekainaren 22ko akordio honekin agintari europarrek inbertsio-funts pribatuei seinale bat eman nahi izan diete: abuztua igarota berriz ere titulu greziarrak erosteko aukera izango dute, [berme](#) publikoak eskainiko baitira.

-M.B. Zein da Greziako ekonomiaren egoera?

-E.T. Negargarria. [BPG](#)aren jaitsiera 2009-2010ekiko ia %30ekoa izan da. Adierazle makroekonomikoei dagokionez, Grezia egoera txarrean dago. Kualifikazio altuko 350.000 gaztek alde egin dute Alemaniara, Frantziara eta Europa iparraldeko beste herrialde batzuetara. Greziaren bilakaera demografikoa negatiboa izango da, alde batera utzita hartzen ari diren errefuxiatuak; hauei esker 2016-2017 oreka mantendu ahal izan da. Hemendik aurrera, ordea, Greziako biztanleriak behera egingo du. Gazteen langabezia tasa %40 ingurukoa da. Eurostaten kopuruen arabera, greziar familien %47ak beren [kredituetako](#) baten ordaina etenda dauka; bankuen kredituen artean ere etendako ehunekoa %46,5etik gorakoa da. Enpleguaren, finantza-

sistemaren eta produkzioaren egoera ere oso txarra da, hau, Greziari inposatu zaizkion politiken ondorio izan da.

Herrialde helenikoa Europar Batasunean aplikatu diren politiken pagaburua izan da. Europar Batasunak Euroguneko gainerako estatuei erakutsi nahi izan die larrutik ordainduko zutela ezkerreko alderdi erradikal bat hautatzen bazuten, zein honek aldaketa erradikala eta austeritatearen kontrako diskurtsoa bazuen.

- M.B. Zer egin behar zen, bada?

-E.T. 2010ean bankuen krisia konpontzea halabeharrezkoa izan behar zuen, eta ez zituzten kostak ahala kostak salbatu behar arrisku izugarriak hartu zituzten banku pribatuak. Banku hauek birkapitalizatzeko milaka milioi euro txertatu beharrean, beharrezkoa zatekeen saneatu eta gero sektore publikora pasatzea. Gaur Grezian lau bankuk merkatuaren %85 kontrolpean dute. Arlo pribatu greziarrari dirutza mailegatu zioten banku aleman eta frantsesak derrigortu egin beharko zituzketen zalantzazko kredituak beren gain har zitzaten, eta ez [troika](#) bat sortu, zeinak Greziari diru publikoa mailegatu dion banku handi horiei dirua itzul ziezaian.

Politikoki, greziar herriak 2015ean hautatu zuenean justizia sozialean aldaketa handiak proposatzen zituen koalizioa, beharrezkoa izango zen herri hari demokrazia egikaritzeko aukera ematea. Haatik, agintari europarrek borondate demokratikoari eraso egin diote behin eta berriz, eta 2015eko udan azkenean Tsiprasek amore eman zuen, Greziako krisia larriagotu zuten hirugarren memoranduma sinatu zuenean.

-M.B. Greziaren zorra deuseztatu beharra al zegoen?

- E.T. Jakina. Hori egitea ohikoa da. Poloniak 90etako hamarkada hasieran [Varsoviako ituna](#) utzi zuenean, Mendebaldeko bere hartzekodunek zorra %50 murriztea onartu zuten. Egipto urte haietan Golkoko lehen gerran partaide zelarik ere zorraren %50 kitatu zitzaion. Iraki, berriz, 2003ko inbasio amerikarraren garaian, zorraren %80 barkatu zitzaion.

Beraz, zorraren zati handiak barkatzea aspalditik datorren praktika da. Eta hau ezinbestekoa izan zatekeen Greziaren kasuan. Noski, beharrezkoa izango zatekeen ere herritarren parte hartzearekin zorrak ikuskatzea, erabakitze ardurak nortzuri zegozkien, hala greziarren, nola mailegu emaileen aldetik. Gogoratu beharra dago BPGaren portzentajea Grezia mundu mailan 3.a edo 4.a dela arma-gastuan! Eta, zein herrialde dira Greziaren arma hornitzaile nagusiak? Alemania, Frantzia eta AEBk! 2010ean lehen memoranduma ezarri zenean, murriztu ez zen aurrekontuko sailetakoa bat eskari militarrena izan zen. Gaur arte. 2018 hasieran Alexis Tsipras Donald Trumpekin bildu zen eta iragarri zuen 1.600 milioiren truke erosiko zizkiela armak Estatu Batuei.

Alberto Nadalen itzulpena

3. MULTINAZIONALEK ETEKINEN %40 PARADISU FISKALETARA TRANSFERITZEN DITUZTE

Botere korporatiboak imajinario kolektiboan ideia bat txertatu nahi du: enpresa eredu positiboak, jarraitu, babestu eta saritu beharrekoak, enpresa multinazional handiak dira. Agintari politikoak lehian dabilta argazkia ateratzeko enpresa handi horietako buruekin (Iberdrola, Repsol, BBVA, Volkswagen, Arcelor Mittal edota Mondragon Taldea).

TTIP eta CETAREN moduko belaunaldi berriko merkataritza itunen xedea da pentsamolde hori bedekatzeko: Horien arkitektura juridikoak enpresa handien interes partikularrak lehenetsi eta defenditzen ditu, giza-eskubideen, eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ekologikoen gainetik.

Haatik, piska bat sakonduz gero ikusiko da enpresa transnazionalak ez direla inola ere eredugarriak. Artikulu honetan aztertu egingo dugu Berkeleyko unibertsitateko Gabriel Zucman irakasleak beste bi kiderekin batera (Thomas R. Torslov eta Ludvig S. Wier) idatzi duen txostena: "Nazioek galdutako etekinak". Bertan analisía egiten dute gobernuek diru-sarrerak nola galtzen dituzten enpresek paradisu fiskalak baliatzearen ondorioz.

Ikerlan horretan islatzen da joera orokor bat: enpresek gero eta zerga gutxiago ordaintzen dute. Sarritan jaitziera hori zuzitzeko esaten da lurraldea kapitalarentzat erakargarri bihurtu behar dela (argudio hau aski ezaguna da euskal ogasunetako arduradunen ahotan).

Kontua da multinazional handiek ez dutela alde batetik bestera kapital

handirik mugitzen. Benetan lekualdatzen dutena etekinak dira, nora eta zerga gutxiago ordaintzen den estatuetara. Enpresek hiru bidetatik egiten dute etekinaren transferentzia:

- Taldeko enpresen arteko esportazio-inportazio prezioen (hots, "transferentzia-prezio" direlako) manipulazioa.
- Taldearen baitako interesen ordainketa (zerga kenketak dakartzatenak).
- Intangibleen kokapen estrategikoa (hauek balioa duten aktiboak dira, baina ez dira fisikoak, esaterako marka edo patenteak).

Zucman, Torslov eta Wierren txostenaren ondorioa da multinazionalen etekinaren gutxienez %40 paradisu fiskalera igortzen direla. Hau da, enpresa hauek ingeniarietza fiskalaz baliatzen dira zerga askoz gutxiago ordaintzeko; horrek kutxa publikoei egundoko galera eragiten die.

Oso argi dago etekinak modu artifizialean mugitzen direla zerga handiagoak diren herrialdeetatik gutxiago ordaintzen diren herrialdeetara. Ikerlanak erakusten du paradisu fiskalera atzerriko enpresen errentagarritasuna askoz handiagoa dela bertako enpresena baino (ia 10 bider handiagoa Irlandan edo Luxemburgon). Aitzitik, paradisu fiskalak ez diren lekutan kontrakoa gertatzen da.

Gainera, ikusten denez, 70etako hamarkadatik hona egoerak okerrera egin du. Hots, badirudi paradisu fiskalera transferentzia egiteko politika gero eta usuago erabiltzen dela.

Unibertsitateko irakasle hauen analisiari esker uler daiteke, ondorioz, Observatorio de Responsabilidad Social Corporativa erakundeak dioten moduan Ibex 35-eko enpresek paradisu fiskalera 1.285 filial izatea. Burtsako indize honetako enpresa

guztiek gutxienez filial bat dute horrelako herrialdeetan (Iberdrolak 71 ditu, eta BBVAK, 53).

Bestalde, multinazionalen irabazien %17 besterik ezin da lurralde jakin batekin lotu. Eta muturreko kasua dugu Facebook: ez du aukera ematen bere etekinak non sortu diren jakiteko.

Azkenik, egileen beste bi ondorio aipatuko ditugu, elkarrekin lotuta daudenak:

- Enpresen gaineko zergetan beheranzko lehia sartzeak esan nahi du ontzat ematen dela amaieran zerga-tasa zero izatea. Honek esan nahi du, halaber, errentaren gaineko zerga progresiboak ere desagertzen joatea. Horrela desberdintasuna areagotu besterik ez da egingo.
- Enpresek ordaintzen dituzten zergak gehitzeko aukera dago etorkizunean, paperetako etekinak lekualdatzen baitira, eta ez kapitala. Gakoa ez da hainbeste globalizazioa, baizik lurralde bakoitzean ezarri nahi diren politikak.

Noski, horri beste gogoeta bat erantsi diezaiokegu: horretan guztian agintari politikoei lagundu egiten dute; kapitalarekiko duten menpekotasuna ezkutatzeko herritarrei gezurrak esaten dizkiete.

4. GERO ETA DIRU GUTXIAGO ZUZENTZEN DA LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOETARA

Murrizketen politika ez da zerbait berria. Badaramatzagu jadanik hainbat hamarkada lan eskubide eta eskubide sozialen etengabeko murrizketa


prozesuekin. Politika horiek aplikatu diren esparruetako bat langabezien prestazioena izan da, zein murrizketak sarbide baldintzak handitzean, kopurua murriztean eta prestazioaren iraupena murriztean oinarritu da.

Langabeziagatikoko prestazio maila oso urria da. Azken Egoeraren Azterketan aipatu dugun moduan, langabetuen %22,4k bakarrik jasotzen zuen prestazio kontributiboa. Beste %15,5ek asistentziako prestazioa jasotzen zuen eta gainontzeko %62,1ek ez zuen inolako koberturarik jasotzen langabezia sistematik. Azken urteetan sistemak babesten zituenei bai kobertura tasa zein batz besteko sarrerak jaitsi dizkie.

Berriki publikatu diren datuek errealitate honetan sakontzen uzten digu:

- 2017 urtean, Hego Euskal Herrian 834 milioi euro zuzendu dira langabeziagatikoko prestazioen ordaintzetara (kontributiboa, asistentziazkoa eta kotizazio sozialak barne). Zifra horrek BPGren %0,9 bakarrik suposatzen du. Grafikoan ikusi daitekeen moduan, 2012 urtetik joera beherakorra izan du. Prestazioei pasadan urtean baino 79 milioi euro gutxiago zuzentzen zaie, BPGren ehuneko hamarren bat.
- Azken urteetako langabeziagatikoko prestazioen analisi bat egiten badugu EAE eta Nafarroan, ikusi daiteke 871 milioi euro murriztu direla, hau da, 2012an zuzentzen zen kantitate erdia baino gehiago murriztu da. 2012an zegoen %2tik, 2017an %0,9ra igaro da.

**LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEI
ZUZENDUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK.
HEH. 2012-2017. MILIOI EUROAK ETA BPG-
AREN %**



Beste alde batetik, ondorioztatu daiteke langabeziagatiko prestazioen sistemak superabit handia duela EAEn (ez ditugu Nafarroako daturik):

- 2017an prestazioen ordainketa 660 milioi eurokoa izan zen eta langabeziagatiko kotizazioen sarrerak 1.192 milioi eurotara heldu ziren. Honek 532 milioi euroko superabita suposatzen du.
- 2017ko superabita 2016koa baino 113 milioi handiagoa izan zen, prestazioen ordainketa %8,54 murriztu zelako eta sarrerak %4,53 igo zirelako.

Pentsioen eremuan sisteman dagoen defizita erabiltzen den bitartean erreformen justifikazioa egiteko, ez da entzuten zuzendari politikoek ahotsik langabeziagatiko prestazioetan babesa hobetzeari buruz termino ekonomikoetan existitzen den margen handiaz, erabat beharrezkoa, gainera, datuak ikusita.

5. SOLDATA ARRAKALA: NAFARROAKO EMAKUMEEK GIZONEK BAINO %28 GUTXIAGO KOBRAZTEN DUTE

ELAko Genero Berdintasun Alorretik txosten bat egin da soldata arrakala aztertuz eta proposamenak eginez, eta duela gutxi Nafarroako Parlamentuan ere aurkeztu da txosten hau. Datuei erreparatuz egoeraren larritasuna ikusi daiteke.

Nafarroan emakumeek gizonezkoek baino 8.164 euro gutxiago irabazten dituzte urtean (%28,4). Bi sektore nagusiak kontutan hartuta, Nafarroan emakumeen % 83,6k zerbitzuen alorrean lan egiten dute, eta % 12,5 industrian. Gizonezkoek aldiz, % 45,7 zerbitzuetan eta % 37,3ak industrian. Honekin batera doa industria alorrean soldatak altuagoak direla zerbitzuetan baino (gizonezko gehiago ari da industrian lanean emakumeak baino), zehazkin, gizonezkoek industrian 31.955 euro irabazten dituzte batz besterik eta emakumeek 24.292 euro urteko. Aldiz, zerbitzuetan gizonezkoek 27.205 euro irabazten dituzte eta emakumeek 20.266 euro.

Honi gehitu behar zaio zuzendaritza eta gerente postuen 4tik 3 gizonezkoen esku dagoela (%74,7a), nahiz eta lanpostuak hezkuntza mailaren arabera aztertuz gero, goi mailako hezkuntza behar duten lanpostuetan emakumeak gehiago izan (% 52,2).

Beste alde batetik, lanpostu partzialen % 83,9a emakumeek egiten dituzte, eta jardunaldi osoko lanpostuen % 60,7a gizonezkoek. Kontratazioarekin jarraituz, aldi baterako lanpostuen % 56,1a emakumeen esku dago, eta finkoen % 52,5a gizonezkoen esku.

Hauek enplegua duten emakume eta gizonen artean ematen den desberdintasunen adierazle orokor batzuk baino ez dira, baino enplegurik ez dutenen artean ere desberdintasunak oso larriak dira.

Izan ere, etxeko lanak eta zaintza lanak egiteagatik soldatapeko enplegurik ez dutenen % 87,4a emakumeak dira. Eta honek eragiten duen beste ondorio bat da emakumeek jasotzen dituzten prestazioak gizonezkoek jasotzen dituztenak baino askoz baxuagoak direla. Zentzu honetan, emakumeek jasotzen dituzte erretiro pentsioak ez direnen artean guztien % 89,9 (hau da, kantitate baxuagokoak direnak).

Emakume eta gizonezkoen arteko arrakalaren datuak oso larriak dira, egoeraren adierazle. Soldata eta lan-baldintza desberdintasun hau arazo politiko larria da. Oinarrian sistema kapitalista eta heteropatriarkalaren antolakuntza bera eta lanen banaketa injustua daude. Ezinbestekoa da, beraz, oinarrian dauden arazoei heltzeko urratsak ematea.

6. EAJ ETA PSE-REN DSBE-REN ERREFORMA ATZERA BOTATZEKO AUKERA GALDU DA

ELA, eta beste gizarte eragile eta sindikal askok, hilabeteak daramatzagu Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren edukia salatzen, indarrean dagoena baino larriago, murriztaileagoa eta eskubideak are gehiago mozten dituelako. Eta ez hori bakarrik, legebiltzarran egin diren agerraldietan parte hartzeaz gain, zirriborroari gogoeta eta proposamen zehatzak egin dizkiogu, hori bai, batere kontuan hartu ez dira. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak gainera, Herri Ekimen Legegile bat aurkeztu du, orain

sinadura biltzen dabilena, eta horren gaitako bat DSBEren prestazioaren kopurua eta hori lortzeko bete beharreko baldintzen baldintzak hobetzea du helburu.

Egoera hau izanik, pasadan ekainaren 28an (uda aurreko azken plenoan), lege proposamena bultzatu dutenen eskutik, Eusko legebiltzarreko plenoko gai ordenean Lege Proposamenaren onartzea bozkatzeaz zegoen. Legebiltza taldeek aurkeztutako Lege proposamena izanik, eta ez Lege proiektua bozkatzea beharrezkoa da tramiteak aurrera egin dezan.

Ahal duguk ezezkoa botoa emango zuela iragarri bazuen ere, PP eta EH Bilduren jarrera ezezaguna zen.

Bozka baino ordu erdi lehenago, EAJK eta PSEk, gaia ez jorratzea eta irailetik aurrera ospatu beharreko ondorengo plenoetan berriz gaia aurkeztea eskatu zuten. Argudioa, oposizioak eskatu diela izan da *“oposizioko taldeekin akordioa posible dela aurreikusita, denbora gehiago eskatu dute...”*.

Benetako arrazoa beste taldeen babes falta izan da. Beste 3 taldeek (EH Bildu, Ahal dugu eta PP) aurka bozkatu izan balute, proposamena bertan behera geratuko zatekeen.

Eta horretarako EH Bilduren babesak izan dute, honek eskatu omen zuen luzapena. Gobernuaren LP atzera bota zitekeen. Ahal duguk eta PPren aurkako botoa argia zen. LP baztertzeari ezin hobea izango zen bestelako prestazio sistema baten aldeko apostua egiten dugunontzat eta HELa babesten dugunontzat. Gobernuarentzat aldiz, LP bertan behera gelditzea kolpe itzela lizateke, DSBEren erreforma legealdiaren gai izarra baita.

EH Bilduren erabakia, gure ustez, oso larria izan da. Ez bakarrik EAJ eta PSEri babes ematearren baizik eta HELren tramitazioa zailtzen delako. HELa LP aurkeztu aurretik onartu zuen legebiltzarreko mahaiak eta horregatik LP tramitatu aurretik horren eztabaida bultzatu behar delako.

Bozka, gai ordenetik kentzea, beste alderdien adostasunik gabe ere egin zezaketen.

Baina horrela, EAJ eta PSEk denbora irabazi dute. Denbora, Pprekin edonolako akordio batera heltzeko. EH Bilduk egindako adierazpenen arabera denbora irabaztearen aldekoak, hauek ere akordioaren parte izatea ahalbideratzen dute.

LPak koherentzia handia du, hiru zentzutan: eskubideak murriztean (eta gastua), onuradunak fiskalizatzea (jokaerak, gastuak,...) eta estigantizatzea (hart-marka,...). Ezkerrak LP aurrez aurre gaitzetsi behar du, eta ez Gobernuaren adosteko aukera aztertu.

7. NAFARROAKO GOBERNUAK ETXEBIZITZARAKO ETA ERRENTA BERMATUAREN GAINEKO ESKUBIDEARI BURUZKO EZTABAIDA UKATU DU

Nafarroako Parlamentuko mahaiak Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunari jakinarazi dio erabaki duela ez dituela onartuko tramitera Bermaturiko Errenta hobetzeko aurkeztu den Herri Ekimen Legegilea, ezta alokairu sozialeko etxebizitza eskuratzeko eskubidea ere. Hala, ukatu egin du Nafarroako Parlamentura eramateko

egin beharreko sinadura biltzeko eztabaida. Ukazio hau arrazoitzeko, Nafarroako Gobernuak adierazi du HEL horrekin "aurrekontu-kredituen hazkundera dakarrela", eta beraz, beto eskubidea duela.

Eskubide Sozialen Gutunak onartezina deritza erabaki horri, ikuspuntu demokratiko zein ikuspuntu sozialek.

Gutziz ez-demokratikoa den jarrera batez ari gara

Ukazioa, Herri Ekimen Legegilean proposatu neurriek aurrekontu-kredituak areagotzea ekarriko dutenean oinarritzea, Herri Ekimenean izaera bera ukatzea dakar. Edozein gizarte-hobekuntzak, logikoa denez, berekin dakar aurrekontuak handituko direla. Horren harira zerbait planteatu ahal izango dela ukatzeak eragiten du zentzugabekeriara iritsi gaitzkeela, non herri ekimen legegilea proposatzekotan, gizarte eskubideak kaskartzeko bakarrik proposa daitezkeen.

Egungo Nafarroako Gobernuak, aitzinean ez bezala, bestelako jarrerak agertu beharko lituzke. Adibidez, pentsioak 1.080 € arte osatzeko aurkeztu zen herri ekimen legegileari ez zitzaion beto hori ezarri, nahiz eta sinadura bildu ondore, Parlamentuan egin zen lehen bozketan izapidea ez zen onartu.

Hainbat ekimenean eztabaidari betoa jarri izana, aurrekontuetako gastua handitzea dakarrela argudiatuz, Rajoyren Gobernuak Ciudadanosen laguntzaz Espainiako estatuan egiten dutenaren isla da. Bere burua aldaketako gobernutzat hartzen duen gobernu batentzat parekatze tamalgarria da.

Eskubide sozialei egiten zaien eraso dugu

Nafarroan etxebizitza heltzeko eskubidea urratzen ari dira. Milaka lagun, batez ere baina ez soilik gazteak, ezin daitezke bereizi, zio ekonomikoak direla eta. Herri ekimen legegileak Errenta Bermatua hobetzeko nahia ere adierazten du funtsean, pobrezia eta gizarte bazterkeriaren aurkako borrokan bitarteko eraginkorra izan dadin.

Nafarroako Gobernuak herri ekimen legegilean jasotzen diren hobekuntzak arbuatu nahi ditu, eta bide azkar batez egin nahi du, gizartean eztabaidatu gabe. Herri ekimen legegilean jasotzen diren aldarrikapenei, haren partaideak garen sindikatu eta gizarte erakundeen artean adostu aldarrikapenei zuzen-zuzenean erasotzen zaie.

Erabaki larria

Eskubide Sozialen Gutuna osatzen dugun erakundeok Nafarroako Gobernuak agertu duen jarrera ez-demokratiko eta ez-sozial hori gogoan hartzen dugu, baita Gutuna osatzen dugun erakundeekin harremanetan jartzeko asmorik agertu ez izana ere, ezta herri ekimen legegilean jasotzen diren neurri zehatzak aztertzeko edota eztabaidari betoa jartzeko erabakia ezagutarazteko ere.

Gure erabakiak

Egoera honelakoa izaki, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak ez du etsiko eskubide sozialak hobetzearen aldeko lanean; bere horretan eusten die Nafarroako Gobernuak betoa jarri duen herri ekimen legegilean jasotzen diren aldarrikapenei. Horrengatik agintzen du:

- Nafarroako Gobernuari

eskatuko zaiola berehala berrazter dezala erabakia, herri ekimen legegilearen izapideari berehala ekin dakion.

- Talde politikoei eskatuko zaiela Nafarroako Gobernuaren erabaki honen aurrean jarrera ager dezatela eta herri ekimen legegilean jasotzen diren edukiak parlamentuaren eztabaidara eramanez dezatela.

Egungo herri ekimen legegilearen legea alda dadila eskatuko dugula, eragotz dadin Nafarroako Gobernuak inolako beto eskubidea izatea.

8.- PROPOSAMENA: ALTERNATIBEN HERRIA

Beste mundu bat behar dugula uste dugu, posiblea dela gizartea bestela antolatzea, berdintasunetik eta jasangarritasunetik. Bide horretan borroka eta proposamen asko aurrera eramanez behar dira, egungo gizarte eredu kapitalistari alternatibak ezarri behar zaizkio.

Eta horren erakusle dira munduan zehar antolatu diren hainbat eta hainbat Alternatiben Herri, kapitalismotik deskonektatzea posiblea dela eta eskura dugula ikusteko modu bat da.

Ekainaren 2an Iruñean ospatu zen Alternatiben Herria, egun batez kapitalismoari arlo guztietako alternatibak erakusteko asmoarekin. Baina Alternatiben Herria egun bat baino gehiago da. Antolatze eta sortzeko prozesua bera helburua ere badelako.

Urte bat baino gehiago eman dugu egun hau prestatzen. 70 eragile baino

gehiagok parte hartu dugu ekimen honetan, beste modu batera elkarrekin lan egiten ez dugun eragileak asko eta asko. Eta hau da Alternatiben Herriaren izate eta helburua ere, eragile eta era askotako militanteak ezagutzea, elkarrekin lana egitea eta proiektu amankomun bat aurrera ateratzea.

Erabakiak batzarretan hartu dira, eta lana auzolanean egin da. Hau bera ere bada alternatibak eraikitzea.

Ekainaren 2an Iruñean, Nafarroan eta Euskal Herrian kapitalismoari alternatibak baditugula ikusarazi zen. Hamaika hitzaldi, erakusketa, bertso, aurkezpen, tailer, antzerki, kontzertu, azoka eta jende bildu giñen horretarako. Gai eta arlo guztietan badira alternatibak martxan.

Beste gizarte eredu baterantz pauso bat izan da hau, bide luze bateko pauso bat gehiago. Eta Urriaren 6 eta 7an beste pauso bat gehiago emango da Baionan Alternatiben Herrixkan.